# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**6535**

AGINDUA, 2010eko abenduaren 15ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena; 2010-2011 ikasturteko Abelino Barriola sarirako dei egiten duena.

Hezkuntzaren eginkizun nagusietakoa izan ohi da, jakina denez, eskola-umeen irakurmena landu eta testu idatziak ahoz adierazten erakustea.

Hizkuntzaren ahozko adierazmena bat-bateko mintzamenez mamitzen da nagusiki. Hala ere, garrantzitsua da gaztejendeak behar den erraztasunez, ebakera zuzenez eta doinuera egokiz irakurtzen jakitea.

Behar hori are nabarmenagoa da jendaurreko erabilera-eredu zuzenak aski mugatuak dituzten eremu urriko hizkuntzen kasuan: hor sartzen da, betebetean sartu ere, euskararen egoera.

Belaunaldi berriek euskaraz egiten ondo jakingo badute, boz goran prestu irakurtzen jakin beharko dute, besteak beste. Eta ondo irakurtzen, bistan denez, eskolan ikasi beharko dute nagusiki.

Irakasleen zeregina eta eragimena funtsezkoa da alor honetan: garrantzi handia du, alegia, irakasleak umeen irakurmen-lanketari zenbateko atentzioa eskaintzen dion eta zer-nolako irakaspidez baliatzen den.

Euskara jendaurreko komunikabideetara (irratitelebistak, megafoniazko azalpenak e.a.) zabaltzen ari den honetan, bestalde, aski nabarmen agertzen ari da euskal belaunaldi berrien boz gorako irakurmena asko hobetu daitekeela. Hobekuntza-bideak huts-hutsik eskolaren esku ezin utz badaitezke ere, eragile nagusi eta garrantzitsua izan daiteke berau.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, behar honetaz jabeturik, xede hori lortzen lagunduko duten baliabideak indartu nahi ditu.

Honen haritik,

EBATZI DUT:

***Artikulu bakarra.***– 2010-2011 ikasturteko Abelino Barriola sarirako deia onartzea, agindu honen eranskinean zehazten diren oinarri-arauen arabera.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**6535**

ORDEN de 15 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca el premio Abelino Barriola para el curso 2010-2011.

Desarrollar la capacidad lectora de los escolares y adiestrarlos en la expresión oral de textos escritos es, como sabemos, una de las tareas educativas más importantes.

La expresión lingüística oral se desarrolla, fundamentalmente, a través del habla espontánea. No obstante, es importante que los jóvenes aprendan a leer con soltura, con una correcta pronunciación y una entonación adecuada.

Esa necesidad es aún más evidente en el caso de lenguas minoritarias en las que son bastante limitados los modelos de uso correcto del lenguaje en alocuciones públicas; el euskera, sin lugar a dudas, se halla dentro de esa categoría.

Si se pretende que las nuevas generaciones utilicen correctamente el euskera deberán, entre otras cosas, aprender a leer adecuadamente en voz alta. Aprendizaje que, evidentemente, debe llevarse a cabo mayormente en la escuela.

La labor y la influencia de los profesores son fundamentales en este aspecto. La atención que el profesor preste al cultivo de la capacidad lectora de los/las alumnos/as es trascendental, así como los medios de los que se valga para ello.

En una época en la que el euskera está llegando a medios de comunicación públicos (radio y televisión, avisos por megafonía...), es notorio que la lectura en voz alta de las nuevas generaciones de vasco hablantes se puede mejorar considerablemente. Aunque dicha labor de perfeccionamiento no debe reducirse al ámbito escolar, éste sigue siendo un medio influyente e importante.

Así pues, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, consciente de esa necesidad, desea dedicar más medios a la consecución del objetivo anteriormente mencionado.

Por todo lo expuesto,

RESUELVO:

***Artículo único.***– Aprobar la convocatoria del premio Abelino Barriola para el curso 2010-2011, de acuerdo con las bases que figuran como anexo a la presente Orden.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren ondorioetarako, agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011 urteko aurrekontu orokorretan kreditu egoki eta nahikoa egotearen edo ez egotearen mende geratuko da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Oinarri-arauek jardunbide kontuan begiz jo gabeko orotarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak dioena hartuko da oinarri.

***Bigarrena***.– Interesatuak deialdia eta oinarri-arauak inpugnatu ahal izango ditu, bai eta horien ondorioz Administrazioak egin ditzan egintza oro ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioko Legean ezarritako epean eta eran.

***Hirugarrena***.– Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hurrengoan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 15a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

OINARRI-ARAUAK

1.– 2010-2011 ikasturteko Abelino Barriola irakurmen eta deklamazio-lehiaketa jakinarazten da. Deialdi honen zenbatekoak ezin izango du 77.000 euroko kopurua gainditu.

2.– Helburu bi ditu Abelino Barriola sari-lehiaketak:

Euskaraz irakurtze eta deklamatze kontuan emaitza hoberena lortzen duten ikasgelei berariazko saria eskaintzea.

Deialdiaren helburu diren emaitzak lortzeko ahalegin berezia egin eta saria irabazten duten taldeen irakasle arduradunei berariazko saria eskaintzea.

3.– Lehiaketa honetan 2010-2011 ikasturtean hurrengo atalean zehazten diren mailetako ikasgelek parte hartu ahal izango dute.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos contemplados en la Orden de 26 de abril de 2007, del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Resolución de concesión de las ayudas de la presente Orden queda supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para el ejercicio 2011.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– En todo lo no previsto por las bases en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda***.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición, ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV. Así mismo, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir de la fecha señalada.

***Tercera***.– La presente Orden surtirá efecto al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ANEXO I

BASES REGULADORAS

1.– Se convoca el concurso Abelino Barriola de lectura y declamación en euskera para el curso 2010-2011. El gasto de la concocatoria no superará la cantidad de 77.000 euros.

2.– Dos son los objetivos del concurso Abelino Barriola:

Ofrecer un premio extraordinario a las clases que obtengan mejores resultados en los ámbitos de la lectura y la declamación en euskera.

Conceder un premio extraordinario a los profesores responsables de las clases que hayan obtenido alguno de los premios, por su dedicación especial a la consecución de los fines que persigue la convocatoria.

3.– Podrán participar en este concurso durante el curso 2010-2011 las clases relacionadas en el párrafo siguiente.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateratuaren 50. artikuluko 5. artikulua aldatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera jarritako auziren batean sartuta dabiltzanek. Horren ondorioz, diru-laguntza eskatu nahi dutenek zinpeko aitormena aurkeztu beharko dute, artikulu horretako inolako auzitan sarturik ez daudela ziurtatuz.

4.– Eskola-umeen maila eta eredu desberdinak kontuan izanik, zazpi multzotan banatuko dira Abelino Barriola sari-lehiaketara aurkez daitezkeen ikasgelak:

A eredua LMHko 5. eta 6. maila Sari 1

A eredua DBHko 1. eta 2. maila Sari 1

B eredua LMHko 5. eta 6. maila Sari 1

B eredua DBHko 1. eta 2. maila Sari 1

D eredua LMHko 3. eta 4. maila Sari 1

D eredua LMHko 5. eta 6. maila Sari 1

D eredua DBHko 1. eta 2. maila Sari 1

Lehia multzo horietako bakoitzean jokatuko da eta ez parte-hartzaile guztien artean. Esan nahi baita, A ereduko LMHko 5. eta 6. mailakoak eredu eta maila berekoekin alderatuko direla. Berdin-berdin beste sei multzoetako bakoitzean.

5.– Sari-lehiaketaren zazpi arlo horietarako epaimahai bakarra izendatuko du Hezkuntzako sailburuordeak. Ondoko erakunde edo esparru hauetariko ordezkari bana izango du epaimahai honek:

Euskaltzaindia. Erakunde honen ordezkaria izango da epaimahaiburu eta berak erabakiko du botuberdinketa gertatzen bada.

EITB (Euskal Irrati-Telebista).

Berritzeguneetako hiru Hizkuntza Normalkuntzako Teknikari.

Euskal deklamazio-alorrean berariazko itzala duen jakitun bat.

Euskara Zerbitzuko bi kide, hizpidez baina boturik gabe (hauetariko bat idazkari).

Epaimahaia sortzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan agindutakoari jarraituz, bermatu egingo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela.

6.– Epaimahaiak honako puntuok izango ditu kontuan:

a) ikasgelak dira aztergai, ez banakako ikasle hau edo hura. Batez bestean ongien irakurtzen edota deklamatzen dakien ikasle-taldea sarituko da, beraz.

No podrán concurrir a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incursos en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. A este respecto, los solicitantes deberán presentar una declaración jurada en la que certifiquen que no se encuentran en ninguna de las causas descritas en el citado artículo.

4.– Atendiendo a los diferentes niveles y modelos de enseñanza, se establecen siete categorías para las clases que deseen presentarse al concurso Abelino Barriola:

Modelo A Niveles 5 y 6 de EP 1 premio

Modelo A Niveles 1.º y 2.º de ESO 1 premio

Modelo B Niveles 5.º y 6.º de EP 1 premio

Modelo B Niveles 1.º y 2.º de ESO 1 premio

Modelo D Niveles 3.º y 4.º de EP 1 premio

Modelo D Niveles 5.º y 6.º de EP 1 premio

Modelo D Niveles 1.º y 2.º de ESO 1 premio

Cada clase competirá con las de su propia categoría y no con todo el resto de participantes. Es decir, que los participantes de 5.º y 6.º de EP de modelo A competirán con el resto de grupos de igual modelo y nivel; se procederá de la misma manera en cada una de las seis categorías restantes.

5.– La Viceconsejera de Educación nombrará un único Tribunal para las siete categorías del concurso, que estará compuesto por los siguientes miembros:

Un representante de Euskaltzaindia, quien actuará como presidente y dirimirá los empates que se produzcan.

Un representante de EITB (Euskal Irrati-Telebista).

Tres Técnicos de Normalización Lingüística de los Berritzegunes.

Un experto de reconocido prestigio en el campo de la declamación vasca.

Dos miembros del Servicio de Euskera, con voz pero sin voto (uno de ellos actuará como secretario del Tribunal).

En dicho nombramiento habrá de garantizarse la representación paritaria de hombres y mujeres con formación y capacidad suficiente, de acuerdo con el artículo 20.5 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres.

6.– El Tribunal tomará en consideración los siguientes aspectos:

a) No se evaluará a los/las alumnos/as individualmente, sino a las clases en su conjunto. Se premiará, por lo tanto, al grupo de alumnos/as que mejor nivel de lectura y declamación demuestre en su conjunto.

b) euskara batuan zein literatura euskalki batean idatzitako testuak aukeratu ahal izango dira irakurgai (ikus 9. oinarri-arauan ezinbesteko eta aukerako testuen zehaztasunak).

c) irakurmen eta deklamazio-maila hoberen hori zein taldek duen neurtzeko, ondoko irizpideok izango dira gidari:

Abiadura handiegia saihestu egin behar da. Testuaren ezaugarriei lotuta erabaki behar da mantsoago ala bizkorrago irakurri, baina inoiz ere lasterregi egin gabe. Alboratu egin behar da zenbat eta arinago irakurri orduan eta hobe delako ustea.

Irakurtzen arituko ez balira bezala irakurtzen saiatu behar dute ikasleek: sinesgarritasuna, testua sentitzea, testua irakurtzen gozatzea... Adin eta ezaugarri jakin horietako ikasleak izanik irakurle, beraiek sentitzeko moduko testuak aukeratzeak emaitzak asko hobetu ditzake arlo honetan.

Isiluneak egin beharra dago. Isiluneak testuak eskatu ahala eta behar den bezala egiteak asko hobetzen du emaitza, goian aipaturiko sinesgarritasuna lortze aldera.

Euskararen fonetika-legeak eta ebakera-arauak ahalik eta ongien errespetatu behar dira, erdal interferentziak ahal den neurrian ezabatuz. Beraz, eta besteak beste, «yeismo»ari aurre egingo zaio eta tz/ts/tx fonemen ebakera zuzena berariaz zainduko da.

Erdal doinuari eta batez ere haren eraginez azentuak azkenaurreko silaban jartzeko joerari itzuri egiten saiatu behar da.

Euskararen doinuera egokia, berdin du euskara batuan edo euskalkiren batean idatzitako testua irakurri, oso bereziki zaindu beharko da: aho-hizkuntzaren mintzamolde jatorra izango da patroi eta eredu (ez zen = etzen ...); beraz, euskal hiztun onen ohiko erabilerari egin behar zaio kasu.

Naturaltasuna eta, kasuan kasuko testuaren arabera, enfasi-indarra kontuan hartzekoak dira orobat. Galdera markak normalean ez dira behetik gorako doinuan amaitzen. Harriduretan ere joera artifizialak saihestu egin behar dira inondik ere.

7.– Lehiaketa honetan parte hartzeko orria irakasleak bete behar du, ikasgelaren izenean.

8.– Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak dioena betez, parte hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari baimena ematen dio, eskabidean jasotako datuak bere informatika-fitxeroetan sar ditzan. Parte-hartzaileak, datuetara sartzeko, datuak aldatzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi badu, Hezkuntza Sailburuordetzara jo dezake: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

b) Podrán leerse textos escritos en euskera unificado o en cualquier dialecto literario, tal como se indica en las especificaciones sobre textos de lectura obligada y de libre elección relacionadas en la base 9.

c) A la hora de valorar cuál es el grupo con mejor nivel de lectura y declamación, el Tribunal se atendrá a los criterios siguientes:

Debe evitarse la lectura demasiado apresurada. La velocidad de lectura debe adecuarse a las características del texto en cuestión, desechando la idea de que la lectura es tanto mejor cuanto más rápido se realice.

Los/las alumnos/as deben dar la impresión de no estar leyendo, dando al ejercicio de lectura credibilidad, sintiendo el texto, disfrutándolo... En este sentido, se mejoran mucho los resultados cuando se seleccionan textos adecuados a la edad y características de los lectores, textos que ellos puedan sentir.

Es preciso respetar los silencios que el propio texto requiere. El hacerlo donde conviene y de la manera adecuada mejora notablemente el producto en cuanto a la credibilidad arriba mencionada.

Se respetarán lo más estrictamente posible las normas fonéticas y de pronunciación del euskera, evitando en lo posible las interferencias lingüísticas: se evitará el yeísmo y se cuidará muy especialmente la pronunciación de los fonemas tz/ts/tx.

Se evitarán las interferencias de acento, en especial la que tiende a la acentuación llana.

Se concederá gran importancia a la correcta entonación del euskera, independientemente de que se lea un texto escrito en lengua unificada o en cualquier dialecto. Será patrón y modelo el lenguaje oral castizo, tomando como punto de referencia el uso normal de los buenos hablantes (ez zen = etzen).

Se tendrán en cuenta, asimismo, la naturalidad y la enfatización adecuadas al texto. Hay que evitar, por tanto, las interrogaciones en final ascendente y las admiraciones artificiales.

7.– El/la profesor/a se encargará de formalizar la hoja de participación en este concurso en nombre de la clase.

8.– En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, se autoriza al Departamento de Educación, Universidades y Educación del Gobierno Vasco para introducir en sus ficheros informáticos los datos recogidos en la solicitud. Los concursantes, si lo desean, pueden solicitar de la Viceconsejería de Educación (calle Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz) el ejercicio de los derechos de acceso, rectificación y cancelación de datos.

9.– Ikasturtearen lehen eta bigarren hiruhilekoan burutuko da irakurmen- eta deklamazio- lanketa. Lanketa horren ondorio gisa, bere ikastaldearen grabazio bat egingo du irakasleak kasetean edo CDan; CDa mp3 edo audio formatoan grabatu behar da eta kasete edo CD hori, parte hartzeko orriarekin batera bidaltzeko epea, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik 2011ko martxoaren 3ra artekoa, egun hau barne, izango da. Eskabideak helbide honetara zuzendu behar dira (Eusko Jaurlaritza-Hezkuntza Saila, Euskara Zerbitzua, Nolega atala, Barriola, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Gasteiz). Bestela, epe horren barruan Zuzenean Zerbitzuaren edozein egoitzatan autrkeztu daiteke: Bilbao (Gran Via, 85 – 48011); Donostia-San Sebastián (Andia, 13 – 20003); Vitoria-Gasteiz (Ramiro de Maeztu, 10 behea - 01008), edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezartzen den edozein administrazio-gunetara ere eraman ahal izango dira.

10.– Grabazioa egiteko honako testu hauek irakurriko dira, ordena honetantxe:

a) Ezinbesteko testua: antzerki zati bat, pertsonaia adinbat ikaslek esana (III. eranskina).

b) Taldeak berak aukeratuko dituen hitz lauzko bi irakurgai, beste 2 ikaslek irakurriak; LMH 3-4 mailakoentzat bi ipuinetatik hartuak eta LMH 5-6 eta DBH 1-2 mailetakoentzat bi eleberritatik hartuak.

c) Taldeak berak aukeratuko dituen bi olerki, beste 2 ikaslek irakurriak.

11.– Grabazioak honako ezaugarriok izan behar ditu:

Ikasgela bereko esatari hoberenen grabazioa izango da.

Gehienik 6-8 minutu iraungo du grabazio osoak, tarteko isilaldiak barne, eta isilaldi hauetako bakoitza gehienez 15 segundokoa izango da.

Grabazioaren hasieran ikasgelaren izengoitia entzungo da (urtetik urtera izengoitia aldatu eta leku edo toponimia erreferentziak saihestu egin behar dira). Izengoitiaren ondoren, irakurgai bakoitzaren aurretik, kasuan kasuko ikaslearen zenbakia.

Gutxienezko kalitatea izan beharko du grabazioak (ahotsak garbi entzun eta ulertzeko moduan).

12.– Aipatutako izengoiti berberori eta parte hartzen den kategoria (A-LMH 5-6, A-DBH 1-2, B-LMH 5-6, B-DBH 1-2, D-LMH 3-4, D-LMH 5-6 edo D-DBH 1-2) beste ezer ez da azalduko kasetean edo CDan, bi lekutan idatzita (kasetean edo CDan ezabatzen ez den tintarekin idatzita eta kutxaren bizkarrean).

9.– La labor de preparación y ensayo de los textos se llevará a cabo durante los dos primeros trimestres del curso escolar. Una vez preparados, el/la profesor/a realizará una grabación en casete o CD a su clase; El CD se grabará en formato mp3 o audio. El plazo para el envío de la casete o el CD correspondiente y la hoja de inscripción comenzará el día siguiente al de la publicación de la presente Orden y finalizará el día 3 de marzo de 2011, inclusive. Los impresos deberán enviarse a esta dirección: Eusko Jaurlaritza-Hezkuntza Saila, Euskara Zerbitzua, Nolega atala, Barriola, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Dentro de ese mismo plazo podrá también entregarse en cualquiera de las oficinas del Servicio Zuzenean: Bilbao (Gran Via, 85 – 48011), Donostia-San Sebastián (Andia 13 – 20003), Vitoria-Gasteiz (Ramiro de Maeztu, 10 behea - 01008); o a cualquiera de las dependencias establecidas en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

10.– Cada casete o CD incluirá la lectura de los textos siguientes, en este mismo orden:

a) Texto de lectura obligada: fragmento teatral, en voz de tantos alumnos/as como personajes tenga el mismo (véase el anexo III de las bases).

b) Dos textos en prosa a elección del grupo, leídos por otros/otras 2 alumnos/as, extraídos de dos cuentos en el nivel 3.º-4.º de EP y de dos novelas en los niveles 5.º-6.º de EP y 1.º-2.º de ESO.

c) Dos poesías a elección del grupo, recitadas por otros/otras 2 alumnos/as.

11.– Características de la grabación.

Contendrá la grabación de los mejores declamadores de la clase.

La grabación tendrá una duración máxima de 6-8 minutos, incluidos los silencios entre textos, los cuales no podrán superar los 15 segundos.

Al comienzo de la grabación se escuchará el seudónimo de la clase (se adoptará uno nuevo cada curso y se evitarán las referencias toponímicas). Tras el seudónimo, y antes de cada lectura, el número del alumno/a que participa a continuación.

La grabación tendrá una calidad suficiente, de forma que las voces se oigan de forma nítida e inteligible.

12.– En la casete figurarán exclusivamente los siguientes datos: el seudónimo mencionado y la categoría en que se participa (A-EP 5-6, A-ESO 1-2, B-EP 5-6, B-ESO 1-2, D-EP 3-4, D-EP 5-6 o D-ESO 1-2), escritos tanto en la propia casete o CD como en el lomo de la caja.

13.– Kasete edo CD horrekin batera gutunazal itxi bat bidali behar da. Gutunazal horrek kanpoko aldean eta ageri-agerian hauxe bakarrik behar du idatzita:

Izengoitia.

Kategoria: A-LMH 5-6, A-DBH 1-2, B-LMH 5-6, B-DBH 1-2, D-LMH 3-4, D-LMH 5-6 edo D-DBH 1-2.

Barruan, berriz, bi orri:

Honi erantsitako parte hartzeko orria (II. eranskina) behar bezala beteta.

Beste orri bat ikasgela osoaren zerrenda zenbakituarekin, grabazioan entzuten diren ikasleen izen-abizenak azpimarratuta.

Kasetea eta gutunazal itxia sobre handiago baten barruan bidaliko dira. Agindu honen 8. oinarri-arauan zehazten da nora eta noizko.

14.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak akatsen bat, zehaztasun-faltaren bat edo erantsi beharreko dokumentu baten falta antzematen badu aurkeztutako parte-hartze orrian, bidaltzaileari horren berri emango dio eta 10 eguneko epea emango dio akatsa zuzendu eta beharrezko dokumentuak aurkezteko, eta adierazi egingo dio, hori egin ezean, parte-hartzeari uko egiten diola ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluari jarraiki ebazpena eman ondoren.

15.– Sariak honako hauek izango dira:

Zazpi ikasgela hoberenentzat (kategoria bakoitzeko bana, normalean) Ipar Euskal Herrirako 3-4 eguneko bidaia. Bidaia horretara ikasgela osoak joango dira, ez bakarrik grabazioan entzuten diren ikasleak.

Bi sari berezi.– Epaimahaiak urtero bi ikastetxe sarituko ditu. Lehiaketa honetan aurreko urteetan eta aurtengoan izandako partaidetza edo merezimendu bereziak sarituko dira atal honetan. Ikastetxe hauek ere aurreko pasartean aipatzen diren beste zazpi ikastetxek duten sari berbera izango dute. Ondoko irizpide hauek hartuko ditu kontuan epaimahaiak bi sari hauen izendatzeko:

Aurreko urteetan parte hartze nabaria izana.

Urte honetako parte hartzea.

Saria irabazteko finalisten artean egon izana.

Ikastetxearen egoera soziolinguistikoa.

Betiere ikastetxea da sariaren onura jasotzen duena eta berau saria zein ikasle talderi (gela bat) eskainiko zaion erabakiko duena.

13.– Junto con la casete o CD se enviará un sobre cerrado donde figurarán únicamente los siguientes datos, escritos en su parte exterior y bien visibles:

Seudónimo.

Categoría: A-EP 5-6, A-ESO 1-2, B-EP 5-6, B-ESO 1-2, D-EP 3-4, D-EP 5-6 o D-ESO 1-2.

Introducidas en el sobre, dos hojas:

La hoja de participación (anexo II) adjunta a estas bases debidamente cumplimentada.

Relación numerada de todos/as los/as alumnos/as de la clase, con los nombres y apellidos de los/las alumnos/as que participan en la grabación subrayados.

La casete o CD y el sobre cerrado se enviarán dentro de un sobre más grande a la dirección señalada en la base 8 de esta Orden, dentro del plazo estipulado en ella.

14.– Si la Dirección de Innovación Educativa advirtiera en el solicitud presentada la existencia de algún defecto, inexactitud, o la ausencia de algún documento de los que deben acompañar a la misma, lo comunicará al o a la solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación o aportación, con indicación de que si así no lo hiciera se le considerará fuera de concurso, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

15.– Los premios serán los siguientes:

Un viaje, durante el segundo semestre del año, al País Vasco continental de 3 o 4 días de duración para las 7 mejores clases (en principio una de cada categoría). Participará en dicho viaje la totalidad de la clase, no sólo los/las alumnos/as cuyas voces figuran en la grabación.

Dos premios especiales: - Todos los años el Tribunal premiará dos centros. En esta sección se premiarán la participación y merecimientos especiales del centro en este concurso tanto en los años precedentes como en el actual. Estos centros recibirán el mismo premio que los siete centros mencionados en el párrafo anterior. Para conceder estos dos premios el tribunal tomará en consideración los siguientes criterios:

El haber tenido una participación considerable en los años precedentes.

La participación en el presente año.

El haber estado entre los finalistas del concurso.

La situación sociolingüística del centro.

En cualquier caso es el centro el que recibe el premio y el que decide a qué grupo de alumnos/as (una clase) se le concederá el mismo.

Saria irabazten duen ikasgela bakoitzeko irakaslearentzat astebete inguruko bidaia. Euskaldunok bezala bere hizkuntza indarberritzen saiatzen ari den edo ahozkotasunean ibilbide luzea egin duen herrialde batera egingo da bidaia.

16.– Ikastetxe bakoitzak nahi adina kasete edo CD aurkez ditzake lehiaketara, baina ikastetxe bakoitzeko gela bakarrak jaso ahal izango du saria. Epaimahaiak ikastetxe bereko ikasgela bat baino gehiago jotzen badu irabazle, gorengo mailari emango zaio. Besteari/besteei zegokien saria, dagokion kategorian hurrena geratu den beste ikastetxe bateko ikasgela bati egotziko zaio.

Multzoren batean kaseterik edo CDrik aurkezten ez bada edo aurkeztutako lanek epaimahaiaren ustez multzo horretarako gutxienezko mailarik ez badute, kasuan kasuko saria eman gabe utzi ahal izango da. Multzo batean eman gabe utzitako saria beste multzo batean eman ahal izango da, hartarako merezimendurik duenik badago.

17.– Aurkeztu diren kaseteetako edo CDetako irakurle onenekin CD bat argitaratuko da; CD horri ahalik eta zabalkunde handiena emango zaio eta ikastetxeetara eredu gisa bidaliko da. CD honen esplotazio eskubideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hartzen ditu bere gain edozein lege eraginen aurrean.

18.– Epaimahaiak sarien ebazpen-proposamena helaraziko dio Hezkuntzako sailburuordeari eta honek hartuko du Ebazpena deialdia argitaratzen denetik hasi eta sei hilabeteko epean EHAAn argitaratuko du.

Aipaturiko epean ebazpen espresurik ematen ez bada, bere kasetea edo CDa ez dela saritu ulertu behar du parte-hartzaile orok.

19.– Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea agortzen eta bere aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, argitaratu eta hilabeteko epean.

20.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak beharrezko neurriak hartuko ditu deialdi hau mamitzeko.

Un viaje-estancia durante el segundo semestre del año para el profesor/a de cada clase ganadora. El viaje se realizará a un país, en el que, al igual que los vacos, están llevando cabo un largo recorrido para la recuperación del idioma y su expresión oral.

16.– Cada centro podrá presentar al concurso cuantas casetes o CDs desee, pero sólo podrá premiarse a una clase por centro. Si el tribunal nombrase ganadoras a más de un aula del mismo Centro, será premiada la de nivel más alto. El premio correspondiente a la/s otra/s clases, se concederá a la clase siguiente dentro de la misma categoría y perteneciente a otro centro.

Si en alguna categoría no se presenta ninguna grabación o a criterio del Tribunal los trabajos presentados no llegan al nivel considerado como mínimo, los premios podrán ser declarados desiertos. En tal caso, los premios podrían ser adjudicados en otra categoría, si hubiese candidatos con los méritos suficientes.

17.– Se publicará un CD con las mejores lecturas de las grabaciones presentadas, el cual tendrá la difusión más amplia posible y será enviada a los centros escolares como modelo. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación se reserva los derechos de explotación de dicho CD a todos los efectos legales.

18.– El Tribunal elevará Propuesta de Resolución de los premios a la Viceconsejera de Educación para que adopte la Resolución oportuna, que será publicada en el BOPV en el plazo de seis meses desde la publicación de la convocatoria.

En caso de no dictarse resolución expresa en el plazo establecido al efecto, los grupos participantes deberán entender que sus respectivas grabaciones no han sido premiadas.

19.– Dicha Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes contado desde el día de su publicación.

20.– La Dirección de Innovación Educativa adoptará las medidas oportunas para la correcta ejecución de esta convocatoria.

II. ERANSKINA
*ANEXO II*

2010-2011 ikasturteko

ABELINO BARRIOLA SARIAN PARTE HARTZEKO ORRIA

IKASTETXEAREN DATUAK

Izena: ..........................................................................................Kodea └┴┴┴┴┴┘
Helbidea:.......................................................................Tfnoa.............. ..........................................................................
P.Kodea:................Herria:...........................................Lurraldea: ..................................................................................

IKASGELAREN DATUAK

Taldearen izengoitia:.....................................................................................

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A eredua: | LMH 5 | ☐ | LMH 6 | ☐ |
| A eredua: | DBH 1 | ☐ | DBH 2 | ☐ |
| B eredua: | LMH 5 | ☐ | LMH 6 | ☐ |
| B eredua: | DBH 1 | ☐ | DBH 2 | ☐ |
| D eredua: | LMH 3 | ☐ | LMH 4 | ☐ |
| D eredua: | LMH 5 | ☐ | LMH 6 | ☐ |
| D eredua: | DBH 1 | ☐ | DBH 2 | ☐ |

IRAKASLE ARDURADUNA
Izen-abizenak .............................................................................................................................................................

EZINBESTEKO IRAKURGAIA (Antzerki zati bat: ikus III. ERANSKINA)
TALDEAK AUKERATZEKO IRAKURGAIAK

1.- Prosako irakurgaiak:

1.1 Izenburua ..................................................................................................... Egilea ..................................................
Liburua ........................................................................................................ Liburuko zer orrialde? .........................

1.2 Izenburua ..................................................................................................... Egilea ..................................................
Liburua ........................................................................................................ Liburuko zer orrialde? .........................

2.- Olerkiak:

2.1 Izenburua ..................................................................................................... Egilea ..................................................
Liburua ........................................................................................................ Liburuko zer orrialde? .........................

2.2 Izenburua ..................................................................................................... Egilea ..................................................
Liburua ........................................................................................................ Liburuko zer orrialde? .........................

Arduradunaren sinadura

Ikastetxearen zigilua

Zuzendariaren sinadura

........................(e)n, 201…(e)ko.................aren.......(e)an

ZINPEKO AITORMENA
Eskabide hau sinatzen duenak aitortzen du ez duela Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Zigor- edo administrazio-arloko zigorrik jaso ezta ere eta diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen beste edonolako lege hausterik ez dela gertatzen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne.

ARGIBIDEAK

1.- Orri hau, eskatzen diren datu guztiak beteta, gutunazal itxiaren barruan bidali behar da. Gutunazal horri kanpoko aldean bakar-bakarrik taldearen izengoitia eta parte hartzen duen kategoria jarriko zaizkio.

2.- Gutunazal itxia eta grabatutako kasetea edo CDa sobre handiago batean sartu eta 2011ko martxoaren 3rako ZUZENEAN Zerbitzuaren edozein egoitzatan: Bilbo (Gran Via, 85 – 48011), Donostia (Andia, 13 – 20003), Gasteiz (Ramiro de Maeztu, 10 behea - 01008); edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezartzen den edozein administrazio-gunetan.

3.- Ikastetxe bereko ikasgela bat baino gehiago aurkez daiteke. Kasu horretan, ikasgela bakoitzeko parte hartzeko orri bana bete behar da.

III. ERANSKINA
*ANEXO III*

A eredua - LMH 5-6
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

KALAMITATE BATEN KOMERIAK (Lekeitioko R. M. Azkue ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 6

(Poliziak eta atxilotua komisarian sartzen dira. Bertan dago borreroa)

| | |
|---|---|
| Polizia burua | Ea, borrero, presta zaitez; gaur ere lana daukazu eta! |
| Borreroa | Bai, jauna! |
| Ranba | Baina zertarako behar du horrelako aizkora? |
| Batbi | Beharbada azkazalak mozteko izango du. |
| Tente | (Besoetako giharreak ukituz) Hau dena zurea al da? |
| Borreroa | Bai, jauna! |
| Polizia burua | Berehalakoan jakin nahi dugu non daukan orain arte emandako diru guztia. Galdetu diogu, baina ez digu ezertxo ere esan nahi. |
| Borreroa | Bai, jauna! |
| Nancy | Iruzur bikaina egin digu sasizientifiko honek. Dirua boskoizten zuen makina saldu zigun, baina ez zigun esan diru faltsua egiten zuela. |
| Borreroa | Bai, jauna! |
| Polizia burua | Baina zuk “bai jauna” besterik ez al dakizu esaten? |
| Borreroa | Ez, jauna! |
| Ranba | Hauxe da borrero berritsua! |
| Polizia burua | Ea, galdeiozu non duen gordeta dirua. |
| Borreroa | Zer egin behar dut ba? Oso menu zabala daukat: irakasle baten ordu erdiko azalpena: ‘Nola egin bokadillo on bat’, 1.500 orrialdeko liburua irakurri, telebistako kulebroia jarri... |
| Batbi | Beno, beno... Ez dugu hil behar gero! |
| Borreroa | Egokiena lumatxo batekin kili-kili batzuk egitea izango da, oso emaitza onak ematen ditu eta. |
| | (Denen artean heltzen diote eta borreroa lumatxo batekin igurtzitxoak egiten hasten zaio) |
| Aiert | Ez, mesedez, ez! Ai.... ai! Geldi, geldi! (Saio labur baten ostean) Esango dut, esango dut, dena esango dut! Mesedez, nahikoa da! |
| Polizia burua | Geldi, ea zer esaten duen. |
| Borreroa | Bai, jauna! |
| Aiert | Ohean, koltxoian sartuta daukat. Baina mesedez, ez nazazue eraman horrela! Zer pentsatuko dute auzoek! Bihar bertan ekarriko dizuet dirua. Mesedez! |
| Nancy | Ez dakit ba..., ez dakit ba fidagarria den. |
| Polizia burua | Lasai, ez du ihes egingo eta. Herriko irteera guztiak kontrolpean ditugu! Ezertan saiatzen bazara, zeuretzako okerrago! Oraingoz ez dugu zure ospe ona kakaztuko. |
| Nancy | Beno, baina bihar hamarretarako berton, e! |
| | (Aiert askatu egiten dute eta joaten uzten diote) |
| Aiert | Eskerrik asko, hementxe izango naiz bihar. |
| Polizia burua | Borrero, oso ondo portatu zara! Ondo irabazia duzu fama! Hurrengo batera arte! |
| Borreroa | Bai, jauna! |

7. AGERRALDIA

(Plazan hizketan ari dira Aiert, Joxe Migel eta Pipamerke)

| | |
|---|---|
| Pipamerke | Bai, bai. Denei abisatu diet. Laster etorriko dira denak! |
| Aiert | Ea egia den. |
| Joxe Migel | Ba nik uste dut San Juan suan erre behar genukeela. |
| Pipamerke | Ez zaitez astoa izan, mando hori! Herriko bati ez diozu egingo, ba , horrelako mesede bat! |
| Joxe Migel | Herrikoa bai, baina… |
| Pipamerke | Beno, beno... Zeuek zarete laguntza eske beragana joaten zaretenak. Hor datoz beste guztiak, ea ados dauden. |

A eredua - DBH 1-2
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

NUEVA ZARAGOZA-KO HERRITARRAK (Durangoko Kurutziaga ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 5

| | |
|---|---|
| Erramun | Zer ote da hau? (Hau esaten duen bitartean, zabortegiko biztanleek inguratzen dute). |
| Matilde | Nor zara zu? |
| Erramun | E?! |
| Asier | Ea nor zaren galdetzen dizu! |
| Erramun | Nor, neu? |
| Miren | Ez zure atzean dagoena. |
| Erramun | Nire atzean ez dago inor. |
| Josune | Ene! Hau ez da normala! |
| Pruden | Itzulidazu liburua, neurea da eta. |
| Erramun | Zure zer? |
| Matilde | Stop! Bost minutuko geldiunea. Goazen astiro, ea elkar ulertzen dugun. Gu hemen bizi gara eta zu ez dakit nondik etorri zaren; beraz, guk, hemengook, nor zaren jakin nahi dugu. OK? |
| Erramun | Beno, ba, ni Denboraren semea naiz. Hiru anaietan gazteena naiz eta Geroa dut izena; baina handiputz itxurako izena denez, ez zait gustatzen eta Erramun erabiltzen dut. |
| Xabier | Adarrik ez jo, mesedez! |
| Miren | Joan zaitez koplak kantatzera hor zehar! |
| Erramun | Egia da. Begira, nire anaia Iragana, beti "plastada" ematen ari zait; bere garaian gizon ezin hobeak egon zirela, Julio Zesar, Felipe II... |
| Antton | Bai, ezagutzen ditugu. |
| Erramun | Eta zera dio, nire garaian horrelakorik, alerik ere ez dela izango. Gaur eguneko jendeak ez duela piperrik ere balio. |
| Josune | Geldi hor! Esaiozu zure anaiari horrelako gizonik ez dugula behar eta gaur egunekoak nolakoak garen jakin nahi badu, jaisteko hona, horretarako behar dena badu. |
| Matilde | Lasai! Gauza batzuk ez ditut ongi ulertzen. Bat: nola agertu zara hemen? |
| Erramun | Aurrekoa ez baduzue sinestu, orain kontatu behar dudana gutxiago. Esan dizuet Denboraren semea naizela, ezta? Ba berak espazio-ontzi bat erregalatu zidan. Horrela aukera izango dudalako Historian zehar aurrera eta atzera mugitzeko eta Historia bera nola idatzi behar den ikasteko. Nire anaiak "kaparrada" ematen zidan eta... |
| Pruden | Hori badakigu! |
| Matilde | Utziozu bukatzen! |
| Erramun | "Kaparrada" ematen zidan eta, bere apunteak ohostu ondoren, etxetik hanka egin dut espazio-ontzian… Horixe da nire historia. Eta zuena? Zeren… hau ez da galdeketa bat izango, ezta? |
| Matilde | Gu zabortegiko biztanleak gara. Toki guztietatik bota dituzten neska-mutilak. Inongo liburuetan agertzen ez diren pertsonaiak. |
| Taldea | (Txaloak) Oso ondo, Matilde! Primeran! Horrela hitz egiten da! |
| Erramun | Eta zertan ari zineten ni etorri aurretik? |
| Pruden | Eskuan duzun liburua irakurtzen. Eta irakurri ondoren, Historiak jendea nola tratatzen duen komentatzen. |
| Antton | Bai! Nola batzuen izenak letra handiz idazten diren... |
| Xabi | Eta besteak idatzi ere ez! |
| Josune | Eta hobe da emakumeen bila ez hastea! |
| Miren | Ezta agertu ere! |
| Erramun | Oso interesgarria da. Anaia ekarriko dut zuek esaten duzuena entzuteko... Um, um, edo bestela... Eta garai haietako pertsonaiak bertora ekarri eta ea liburuetan egotea merezi duten erabakitzen badugu? |
| Denak | Oso ondo, ideia ezin hobea, epaitu ditzagun... |

B eredua - LMH 5-6
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

KALAMITATE BATEN KOMERIAK (R.M. de Azkue ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 6

| | |
|---|---|
| | (Prentsaurrekoen gela, behar diren tresnez hornitua. NASAko zuzendaria hizketan). |
| James | Gaur, jaun-andreok, kontratu mundiala sinatuko da. Aiert Estegain fisikaria kontratatuko baitugu. |
| Kazetaria 1 | Eta zer egiten dute, hor atzeko kohete horiek? |
| James | Hor atzekoak? Ez, ez, horiek apaingarri hutsak dira! |
| Kazetaria 2 | Egia al da zientzilari bat kontratatu duzuela? |
| James | Bai, eta gainera gaur bertan sinatuko dugu kontratua, bera heldu eta berehala, hain zuzen ere. |
| Kazetaria 3 | Eta zein asmakizun zekarrela esan duzu lehen? |
| James | Ba, esan didatenez, dirua bikoizten edo hirukoizten duen tramankulu bat. |
| Kazetaria 2 | Eta handia al da? |
| Kazetaria 1 | Zer itxura du? |
| James | Itxura ez dakit, baina berria dela bai. Handia izatea ere normala litzateke baina, hobeto jakiteko, itxaron egin behar... (Deiadar eginez) Hemen dator! |
| Aiert | Kaixo… |
| | (Kazetariak korrika hurbiltzen zaizkio) |
| Kazetaria 1 | E! Tordo News-erako galdera batzuk…! |
| Kazetaria 3 | Mesedez! American Notissias-erako? |
| Aiert | Zera... orain... ez dut denborarik... itxaron piska batean, makina kanpoan utzi dut eta. |
| | (Asmatzaileak kanpora irten eta makina ekartzen du). |
| Kazetariak | O! Zoragarria! |
| Nancy | Hori zen orduan ezkutuan zeneukan makina? |
| | (Bitartean, kazetariek argazkiak ateratzen dituzte). |
| James | Beno ba… tori kontratu-karpeta orriarekin. Sina ezazu hortxe behean. |
| Aiert | (Sinatuz) Mmm… Kitto! |
| Kazetaria 3 | Eta nola sentitzen zara kontratua sinatu ondoren? |
| Aiert | Trankil eta gustura, etxean bezalaxe. |
| Kazetaria 2 | Zuzendari jauna, zenbat ordainduko diozue Aierti? |
| James | Oraingoz, hilero 2.000 $, baina noski, baliteke bi urtetan 2.700 $etara igotzea, eta bost urte barru 3.300 $etara. |
| Kazetaria 1 | Aiert, kanpoan galdeketatxo bat? |
| Aiert | Bai, baina itxaron, frogatu egin behar baitut makina. Ba al du inork txanponik? |
| Kazetaria 2 | (Txanpona emanez) Nik neuk! Tori, jauna. |
| | (Asmatzaileak goiko zulotik txanpona sartu eta, handik piska batera, bost irteten dira). |
| Nancy | Egia zen! Bost halako irten dira! Uau! |
| | (1. eta 3. kazetariak Aiertekin irteten dira, galdeketa egitera. Nancy ere joan egiten da). |
| Kazetaria 2 | Jauna, eta zelan funtzionatzen du zera honek? |
| James | Ba, nik ez dakit eta… Aierti galdetu beharko diozu! |
| | (Bat-batean, korrika bizian, Estatu Batuetako ekonomia ministroa sartzen da). |
| Bety | (Arnasestuka) Arf! Jauna... Gobernutik dei egin didate, dirua laukoizten duen makina hori erosteko esanez.. Arf! |
| James | A bai? Ba itxaron pixka batean, oraintxe esango diot etortzeko. |
| | (Nagusia irten eta Aiertekin satzen da). |
| Kazetaria 2 | Eta zenbat ordainduko diozue? 20.000 $ akaso? |
| Bety | Beno, egia esan, 500.000 $ edo... |
| James | (Betyri zuzenduz) Hemen da Aiert, eta kontatu diot guztia... |
| Aiert | (Zarataka) Ezta pentsatu ere. Ez dut inoiz makina hori salduko! |
| Bety | Ez eta 500.000 $etan ere? |
| Aiert | E… zenbat da hori? |
| Kazetaria 2 | Nik uste... 900.000 euro inguru. |
| Aiert | (Ekonomia ministroari eskua emanez) Orduan bai, eginda! |

B eredua - DBH 1-2
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

NUEVA ZARAGOZA-KO HERRITARRAK (Durangoko Kurutziaga ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 5

| | |
|---|---|
| Pruden | Zenbat Historia, hainbat galdera.<br>Historiak bezainbat galdera.<br>Zenbat Historia! Zenbat galdera!<br>(Bukatzen denean, batak besteari begiratzen diote, harrituta. Matilde txaloka hasten da eta besteek gauza bera egiten dute). |
| Miren | Ez dakit ona ala txarra izan den, baina irakurtzen egon zaren bitartean ez dut goserik sentitu. |
| Josune | Miren! |
| Miren | Ongi da! Ez pentsa ez naizela ezertaz enteratu. Niretzat zirraragarria zera izan da, Julio Zesarrek bere sukaldariaren izena ez jakitea. Lotsagarria benetan! |
| Antton | Eta Txina Handiko enperadoreak ez jakitea non lo egin zuten bere harginek. Ziur naiz ez zekiela adreilu bat bestearen gainean ipintzen. |
| Josune | Nik ez dakit konturatu zareten, baina badirudi emakumeok Historian ez dugula parterik hartu izan. Badirudi negar egiteko bakarrik jaioak garela. Felipe II.a nire eskuen artean banu, lepoa bihurtuko nioke! |
| Antton | Beno, ez zaitezte leloak izan. Historiak garaileen izenak idatzi ditu beti. Horrek ez nau ni harritzen, indartsuenek euren erara idatzi baitute Historia. |
| Pruden | Arrazoi duzu, baina poemak galdetzen du ea non dauden beste protagonistak, gizon eta... |
| Josune | Eta emakumeak! |
| Pruden | Beren proiektu handiak aurrera eramateko behar izan dituztenak. |
| Matilde | Adibidez, gu auzune pobre batetik bota gaituzte etxe dotoreak egiteko; gure auzuneko lurra baliagarria zen eta bertan azken modako etxe dotoreak eraikiko dituzte. Historiako liburuetan arkitektoen izenak agertuko dira, baina aurreko biztanleen izenak ez dira inon agertuko. |
| Antton | Hori ez dago ondo; gu hiritarrak gara besteak bezala eta lur hori gurea zen... beno, horrela sentitzen nuen nik. |
| Pruden | Ba hori da poemak esan nahi diguna, ea non dagoen gu bezalako jendea Historiako liburuetan. |
| Josune | Historia! Joan daitezela popatik hartzera! |
| Miren | Hori! Kakatara!<br>(Bero-bero berbetan ari direla, laino beltzek estaltzen dute zerua eta trumoien hotsa, poliki-poliki, gertuago entzuten da). |
| Antton | Nik gustura aldatuko nuke Historia... Julio Zesarren ordez bere soldaduak zer pentsatzen zuten eta zer zuten gustukuen ipiniko nuke. |
| Josune | Nik Historia emakumez beteko nuke; ziur naiz emakume dotoreak egongo zirela, eta... badirudi Historiak jan egin dituela.<br>(Une horretan tximista bortitz batek zabortegiko labadora bat jotzen du. Gure biztanleak, beldurturik, salto eta brinko arinez ezkutatu egiten dira. Labadoratik oraindik kea dariola, pertsonaia ezezagun bat agertzen da ke artean. Gazte itxura du eta eztulka ari da). |
| Erramun | Kaguen puntta-punttako teknologia! Kaguen zirkuito itxiak! Kaguen bidaia galaktikoak! |
| Erramun | Hau da hau, itzelezko ontzi espaziala eta ekaitz arrunt batek txiki-txiki eginda lagatzen dit trastea. Gainera larrialdi-botoia sakatu eta makina inozo horrek ea non nahi dudan lurreratu galdetzen dit. Nik zer dakit ba? Oraindik ez ditut gauzak ezagutzen eta!<br>(Ingurura begiratzen du, jakinmin handiz, gauzak ikutuz eta usainduz). |
| Erramun | Benetan bitxia da toki hau! |
| Matilde | Nor zara zu? |
| Asier | Ea nor zaren galdetu dizu! |

D eredua - LMH 3-4
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

BOST ANAI-ARREBAK (Hernaniko Langile ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 6

| | |
|---|---|
| | (Lau anaiak lanetik datoz). |
| Urtzi | Bai nekatuta nagoela! (Aulkian esertzen da). |
| Mikel | Bainu bat hartuko dut, oso zikin nago eta! |
| Aner | Ni, berriz, lotara noa! (Gelatik ateratzen da). |
| Ekain | Nik lehendabizi afaldu egingo dut, goseak bainago. |
| | (Amaordea haserre bizian sartzen da gelan). |
| Amaordea | Baina, baina... A zer kuxidadea hau! Oinetako zikinekin sartu eta etxeko zorua lohiez bete duzue! |
| Urtzi | Lanetik gatoz eta normala da oinetako zikinekin etortzea, mendian aritu gara eta. |
| Amaordea | Normala! Normala! Dena da normala etxe honetan. Maripurtzil! Zatoz! Garbi ezazu egongela oraintxe bertan! |
| Maripurtzil | Zergatik? Lana besterik ez dut egiten! |
| Amaordea | Lana! Lana! (Besoak gora altxatuz) Zer uste duzu ba? Horretarako zaude hemen: etxeko lanak egiteko; eta zure anaiak, baso-lanetarako. |
| | (Maripurtzil, gogo txarrez, erratza pasatzen hasten da. Berekiko hizketan ari da. Amaordea gelatik irteten da). |
| Urtzi | Lana besterik ez digu agintzen atso zahar horrek! |
| Ekain | Bai… egia. Ez gara gelditu ere egiten eta hala ere ez dago sekula gustura. |
| Mikel | Hau ezin da jasan! Aski da! Nik ezin dut gehiago! |
| Aner | Horrelaxe da, bai. Leher eginda nago atso zahar horren kapritxoak betetzen. |
| Maripurtzil | Zergatik ez duzu aitarekin hitz egiten? Berak lagunduko digu. |
| Ekain | Aita! Zatoz, mesedez! |
| Aita | Zer duzue? |
| Ekain | Zurekin hitz egin nahi dugu. |
| Mikel | Bai, aita, nazka-nazka eginda gaude bizimodu honekin. |
| Maripurtzil | Lana besterik ez dugu egiten eta gure amaorde hori ez dago inoiz pozik. Bere ustez dena gaizki egiten dugu, eta egindakoa ez da sekula aski. |
| Aita | Izan ezazue pazientzia pixka bat. |
| Urtzi | Ez aita, ezin dugu gehiago eraman. Kito! Ni basora noa. Aurkituko dut etxolaren bat edo zer edo zer... baina ez nator etxera gehiago. |
| Beste anaiak | Ni ere banoa! Eta ni zuekin! |
| | (Anaiak joan eta Maripurtzil bakar-bakarrik gelditzen da aitarekin). |
| Aita | Ez nuen uste horrelakorik gertatuko zenik. |
| Maripurtzil | Ez eta nik ere, aita, baina amaordearekin hitz egin beharko duzu jarrera alda dezan. |
| Aita | Saiatuko naiz, bai, saiatuko naiz. |
| | (Handik aste batzuetara Maripurtzil azaltzen da basoan). |
| Maripurtzil | Aibaaaaaaaaaaa! Zer etxola ederra! Merezi izan du etxetik alde egitea. |
| | (Etxolan sartzen da eta... A zer ezustekoa!) |
| Anaiak | Maripurtzil!!!! (Denak garrasika. Etxabolatik irteten dira, pozez beterik, elkar besarkatuz). |
| Maripurtzil | Hau poza! Hau zoriona! Ez nuen uste zuekin topo egingo nuenik! |
| Urtzi | Azkenean senide guztiak elkarrekin! |
| Ekain | Lastima aita ez dagoela hemen! |
| Aner | Afal dezagun, ilundu baino lehen. |
| | (Hurrengo goizean, anaiak basora joaten dira eta Maripurtzil bakarrik gelditzen da. Atarian eguzkia hartzen ari da). |
| Maripurtzil | Hau bizimodua! Hemen bai, lasai asko bizi naiteke! Urteak dira eguzkia hartu ez dudala. |

D eredua – LMH 5-6
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

GEUREA, ZAHAR-ETXEA (Zumaiako Zumea ikastola.)
ESKOLA ANTZERKIA 6

(Kartetan jarraitzen dute. Roxarito eta Agustina sartzen dira).

Roxarito — A zer bizimodua daukan hire alabak gizon berri honekin! Astero diferentearekin ikusten dinat kalean.

Agustina — Esaera zaharrak dioen bezala: Nolako egurra, halako ezpala!

(Aurelio Roxarito eta Agustinari begira geratzen da)

Joxe Agustin — Lagaiek atso zahar horiei bakean, Aurelio, eta segizak jokoan.

(Postaria sartzen da).

Postaria — Abe Maria, graziaz betea.

Denak — Bai, aurrera.

Postaria — Hemen al da Joxe Agustin Agirrezabalaga Buztangorri jauna?

Joxe Agustin — Bai, neu nauk, baina akats bat egin duk. Ez nauk Buztangorri, Puztangorri baizik. "Con P de Hipólito", aditzen al duk? Hipoolito!

Joxe Antonio — Hipolito H-rekin hasten duk.

Inaxio — Baina, ez al dakik P esaten dela altuena. Nik eskola gutxi, baina tildeen lezioa ikasi nian, e!

Joxe Antonio — Hori ere kostata ikasiko huen, bai.

Postaria — Agur Puztangorri jauna eta konpainia.

Roxarito — Lehengoan ikusi al huen…?

(Roxaritok eta Agustinak hizketan jarraitzen dute. Handik pixka batera Eugeni sartzen da)

Eugeni — Hau ez al da nire logela?

Denak — Ez, hau egongela da.

Eugeni — Ai, nik bai "borroso" ikusten nuela!

Aurelio — Nik lagunduko dinat. (Gerritik heltzen dio).

Eugeni — Aizak, kendu itzak esku horiek nire gerritik, gerria nirea bakarrik duk eta.

(Eugeni eta Aurelio joan egiten dira eta Matilde sartzen da).

Matilde — ("Agur Zuberoa"ren doinuarekin kantari) Agur Joxe Manuel, nire bihotzeko azukre koxkor hori...

Kaxpax — Baina, baina Matilde, zertan ari haiz orain ere Joxe Manuelekin pentsatzen?

Matilde — Kalte egiten al dik ni beste batekin pentsatzen egoteak?

Kaxpax — Ez, ez, nik bazeukanat nahikoa Claudia Shiffer eta Maddonarekin.

Matilde — Hi beti emagalduekin pentsatzen.

Kaxpax — Ez itzan iraindu nire andregaiak izango diren emakume panpox horiek.

Matilde — Bai, bai, segi hire ilusio horiekin, konturatuko haiz halako batean eta...

(Garbitzailea egongela garbitzen hasten da kantari eta tabernariak keinu berezi bat egiten du. Ixiar eta Karmele sartzen dira).

Kaxpax — Hemen gure zahar-etxeko emakumerik lerdenena. Zer moduz egin du lo berorrek?

Karmele — Ateraidak kafea eta isildu hadi!

Kaxpax — Bai, hori eginda dago, Karmele. (Eta erizainari) Hik ere nahi al dun zerbait?

Ixiar — Ateraidak niri ere, baina whisky doblea.

Kaxpax — Zer dugu gaur? Etxe honetako denak ezkerreko hankaz jaiki al zarete?

Ixiar — Ezkerreko hankarekin esaten al duk? Ez al duk ikusten zer egin dudan eskubiko hankan?... Bizitza osoa eskailerak igotzen eta jaisten eta hara, noiz eta gaur ez naiz ba erori muturrez aurrera...

D eredua - DBH 1-2
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

RUTINAREN ITZALA (Azpeitiako institutua.)
ESKOLA ANTZERKIA 5

## 5. EKITALDIA

| | |
|---|---|
| | Kalean |
| | (Irati, Naiara eta jende gehiago atzean. Eszenatokiko alde batetik bestera doaz eta biek lagun batzuekin egiten dute topo). |
| Lagunak | Epa! Epa! (Agurtuz). |
| Naiara | (Lagunetako bati zuzenduaz) Ikusi al dun nirea? Jakes oraintxe joan dun goraka, uste dinat 'Denbora-pasa'ra sartu dela. |
| 1. laguna | Bai, ikusi dinat, lagunengana joaten dun, han elkartzen ditun. Hirea ere ikusi dinat. Nola dun? Iker? A ez! Arkaitz. Neska batekin zegonan. |
| Naiara | Madarikatua! Ba berak galtzen din! Gaur oso umore oneko bainagon! (Barrez). |
| | (Irati ingurura begira, urduri balego bezala). |
| 1. laguna | Zer dun, Irati? |
| Naiara | O! Ez dakizue? Mutiltxo bat aurkitu din! |
| 2. laguna | A! Hara hemen mutilak denbora-pasa polita besterik ez zirela pentsatzen zuena! |
| Irati | Bai, denbora-pasa polita, oso polita. |
| 1. laguna | Nor dun? |
| Naiara | Arlatz Bengoetxea. Kale Nagusikoa, farmaziakoaren semea. Opel Kadett zuria erosi duena. |
| 2. laguna | Aukeratzen hasita, bai aukeratu ere! Gustatzen zaidan neuri ere. Aspertutakoan, badakin. |
| Naiara | Ez, ez, oraingoan serioagoa ematen din! (Barrez). |
| | (Arlatz eta Mikel agertzen dira). |
| 1. laguna | Ez begiratu, baina heure atzean zegon, uste dinat hona datozela. Ixo! |
| 2. laguna | Ez dun makala, alajaina. Beno gu joan egingo gaitun, 'diximuloz'; ondo pasa, hi! |
| | (Agurtu orduko Arlatz eta Mikel hurbiltzen dira. Elkar agurtzen dute. Mikel goibel samar dago). |
| Mikel | Beno, ni etxe aldera noak; bihar Jakesekin elkartzekotan gelditu nauk. Astelehenera arte, beraz. |
| Arlatz | Hator motel; trago bat hartu eta gero joango haiz, giro ona zegok etxera joateko. |
| Naiara | Zer, Mikel? Hator lasai, buelta bat emango diagu, ondo egongo gaituk. |
| Mikel | Ezetz!! (Haserre alde egiten du). |
| Irati | Zer dik? |
| Arlatz | Ezer ere ez, ezer ere ez. |

## 6. EKITALDIA

| | |
|---|---|
| | Tabernan |
| Arlatz | Beno, goazen ezertzera. Giro mundiala zegon, e? |
| Naiara | Bai, ederra, astea pasatu eta gero ondo etortzen duk larunbat gaua. |
| Irati | Mirariak egiten dizkin! Gau majikoa (Ironiaz). |
| | (Barre egiten dute. Irati barrara joaten da. Hiru basorekin itzultzen da. Eseri eta edan egiten dute). |
| Naiara | Begira, etxera joan behar dinat. Bihar neuk gonbidatzen dinat, bai? |
| Irati | Ongi, ongi! Neure kontura edan eta alde, e? Ondo zegon, katalana dirudin. |
| | (Barre egiten dute. Arlatz eta Irati bakarrik gelditzen dira. Arlatz behera begira , pentsakor). |
| Irati | Nazkatuta? |
| Arlatz | Ez, ez. Oso gustura nagon. Benetan. |
| Irati | Ez al duk ezer kontatzeko gogorik? |
| Arlatz | Mikel dun. Ez zebilen ondo! Ez zaidan gustatzen Jakesekin elkartzea. Tipo naturala dun, baina kezkatuta nagon; bolada txarra pasatzen ari dun. Beldurra ematen zidan hain gaizki dabilela Jakesekin elkartzeak. Erraza dun irteerarik gabeko zuloan hanka ipintzea begiak itsutzen direnean. |
| Irati | Zer ari haiz? |
| Arlatz | Benetan, ez dinat uste oso aurrera joanda dagoenik, ez, baina arrisku handietan sartzen ari dun. |